

ITURRI BILA

Joxe Manuel Odriozola

"El euskera y los medios de comunicación en la Comunidad Autónoma del País Vasco", Iñaki Lasagabaster Herrarte, in *Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*, 209-233 orr., HAEE/IVAP, Oñati, 1990.

Aski gomendagarria iruditzen zaigu Iñaki Lasagabasterren azterlan hau. Txosten honetan, hain zuzen ere, lege aldetik euskarak gizarte komunikabideetan normaltzeko dituen ezintasunak eta eragozpenak argi asko baitaude azalduak. Batzuetan oinarritzko marko juridikoaren kariaz. Konstituzioaren 20. artikuluz ari delarik, honako hau dio: "Parece que el idioma no tiene nada que ver con la libertad de expresión, afirmación a todas luces insostenible". Beste ba-tzuetan Euskara Normalizatzekeo Legean hutsune nabarmenak daudelako. Eta ez da falta noski, guztiontzat hain ezaguna bezain makurra den hizkuntz jokaera ofiziala: ez dituela

honek, alegia, berak bere kabuz onartu zituen lege-araudiak gero zuzen eta egoki betetzen euskararen mesedetan.

Txostenaren moldapena bi sail nagusitan egituraturik dauka Lasagabasterrek. Hurrenez hurren, aurrenik "El derecho a ser informado en euskera" ageri zaigu, eta ondoren "La regulación jurídica de los medios de comunicación social y la ley de normalización del uso del euskera". Berak ongi dioen bezala, aztergaiaren xedea zera da: gai honen inguruan dagoen lege-arautegiaren haritik hizkuntza eta gizarte komunikabideen arteko harremana ikertzea.

Espainiar Konstituzioan funtsezko eskubidea da libreki komunikatzeko eta informazioa eskuratzeko eskubidea. Hori horrela baldin bada, nola erantzun behar zaio honako galdera honi?: "¿Es posible diseccionar, en el derecho a recibir información, el derecho del idioma en el que se realiza?. Erantzun borobilik gabe, zehaztapen pare batekin

eran-tzungo dio horri Lasagabasterrek. Alde batetik, ez dirudi hizkuntzazko baldin-tzapen-mugarik, erabatekorik bederen, ezar daitekeenik: atzerritar hizkuntzetan informatzeko eskubidea ere horixe baitago hizkuntza ororen gainera. Haatik, funtsezko eskubide hori aitortzeak ez dio hizkuntzaren izaera ofizialari bere tasun-ahalmenik murrizten eta, hainbestean, hizkuntza ofizialak bere status gorena izango du hizkuntz eskubideen hierarkian.

Baina zertan datza euskaraz informatu izateko eskubidea bere zinezko izaeran? Zertan datza, alegia, bere funtzionaltasuna? Lasagabasterren ustez, eskubide hau honelatsu ezaugarritzen da bere barne-izaeran: "Este precepto se entiende que permite tratar del derecho a ser informado en euskera como un derecho prestacional (que el Gobierno está obligado a *garantizar* el derecho a ser informado) (...) Ahora bien, afirmar que el derecho a ser informado en euskera es un derecho prestacional, que exige una actuación positiva de los poderes públicos y que legitima una pretensión de los particulares, no es suficiente". Zentzu honetan sakonduaz, esango digu eskubide hori komunikabide bakoitzean nola gauzatzen den ikusi behar dela zehatz-mehatz. Telebista eta irratia kasua aztertzen du lehenik, hauen izaera publikoa kontutan harturik, hizkuntza ofizial bakoitzean zerbitzu horiek eskaintzen duten betekizuna azpimarratuz. Jabego pribatua duten gainerako gizarte komunikabideen egoera ere arakatzen du, hauen esparruan botere publikoen eskuharmena zailagoa dela jakinaraziz: hauetan, izan ere, merkatuaren legea baita kultur gintza horien ordenamendu-tresna bakarra.

Lasagabasterren txosteneko beste puntu jakingarri bat hizkuntz eskubidea-

ren gauzapenerako legean ezarrita dagoen denbora-baldintza da. Euskararen Legean progresibotasun baldintza aipatzen da: "El Gobierno, a fin de garantizar de forma progresiva el derecho reconocido en el artículo 22". Baldintzaren hori lege bihurtu da, edota aitzakia ezin hobea euskararen aldeko neurririk ez hartzeko. Eguneroko kontua dugu, esparru batean ez bada bestean, irakaslego euskaldunik ez dagoelako, edota delako funtzionariak dagokion hizkuntz profilik ez duelako, euskaldunaren hizkuntz eskubideak sistematikoki zapal-tzearena. Lasagabasterrek espetxe bateko hizkuntz diskriminazio jakin bat aipatuko digu progresibotasun-baldintzaren izenean egiten diren hizkuntz bidegabekeriak salatuz: "Este fundamento jurídico sirve para negar a un interno de la prisión de Basauri (Bizkaia) su derecho a expresarse en euskera ante la Junta de Régimen y Administración de dicho Centro Penitenciario. La pregunta es obvia. ¿Cómo se puede afirmar que la aplicación del derecho a usar la lengua depende de las posibilidades de la Administración en cada momento si en una institución como una prisión y cuatro años después de entrar en vigor la LNE es imposible el ejercicio del derecho a usar el euskera?".

Txit ezaguna da gure artean legetasunari bere eraginkortasun materiala ukatzeko edota murrizteko balorapena. Murriztapen horren kontzeptu-oinarrian honako irudi hau nagusitzen da: legea edozein delarik ere, egoera soziolinguistikoaren arabera aplikazioa duenez, honek mugatzen du haren eraginkortasun-indarra. Hortaz, lege-tresna hori arau formal hutsa da azken batean: errealitatera moldatzera datorren araubide berria, berezko kemenik ga-

bekoa alegia. Orduan, zer egin? Erantzun erraza aurkitu dute ideologia dominantearen morrontzan dabiltzanak: euskal hiztunak betearazi dezala, bere kabuz eta bere kontzientziaz, lege-objetibitateak ukatzen dion eskubide subjektiboa. Askok gustatu zaigu lege-aditu baten eskutik, aipatu berri dugun guzti horrexegatik beragatik, azken bide honen iruzurra eta gezurra begien bistan ipintzearena. Hona, besterik gabe, ondo gogoan hartu beharko genukeen mezua: "La relación lengua-medios de comunicación social no puede considerarse como resuelta acudiendo a la técnica de los derechos subjetivos. Por la vía de las reclamaciones individuales, de la defensa de los derechos singulares de los ciudadanos, no se va a garantizar la configuración de unos medios de comunicación social que aseguren a los ciudadanos el derecho a ser informados en euskera. Para ello se precisa una actuación decidida de los poderes públicos en esta materia, a cuyo análisis se va a dedicar la segunda parte de este trabajo".

Hizkuntz eskubide subjektiboen amildegian erori nahi ez badugu, noragabeko hizkuntz borroka boluntarista-sinplista baten gatibu izan nahi ez badugu, euskaldun izateko lege-objetibitatea aldarrikatu behar dugu ozenki. Eta hemen komunikabideen alor konkretu hau arakatzen ari garenez, badago zer aldarrikatu, beste inora abiatu gabe ere. Euskararen Legeak, bere erdal idazkeran (Lay Básica de Normalización del Uso del Euskera) izenak ez du zerikusirik izanarekin (normalkuntzaren kontu horrekin alegia); euskarazkoan, aldiz, egokiago doakio izenburua: "Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea". Jainkoak bakarrik baitaki zer esan nahi duen hor "Arauzkotzeko hitz

horrek: izenburu ambiguo bezain zentzugabe horrek askoz hobeto isladatzen du halere bere barneko izpiritua. Eta izena bera okerra duen lege batetik, ezin espero honelako hizkuntz eskubideen "berma" tinkoak baizik: "A lo anterior no resta nada el artículo 24 LNE cuando dice que el Gobierno Vasco 'impulsará la normalización lingüística en los centros emisores de RTVE a fin de asegurar una adecuada presencia del euskera como lengua propia del País Vasco'. Este precepto sería más propio que figurase como orientación de un programa político, que como integrante de una LNE. Si la LNE afecta a todos los poderes públicos situados en la CAPV lo hace también a los centros emisores de RTVE, dependientes de la Administración central del Estado, aunque sea mediante formas instrumentales de las configuradoras de la Administración institucional. El que la ley asigne al Gobierno Vasco la función de impulsar la normalización lingüística en RTVE puede tener un valor de recordatorio de la existencia de ese medio, pero nada más, ya que al depender de la Administración central las posibles acciones a desarrollar por el Gobierno Vasco siempre dependerán del beneplácito de aquella".

Azkenik, baina ez azkena, legetasunaren esparruko bidegabekeriarik handienetako denez, guztien buru jartzekoa baita azkeneko hau. Gauza jakina denez, 240/1986 Dekretuaren eskutik hainbat eta hainbat irrati-frekuentzia banatu zituen Eusko Jaurlaritzak. Frekuentzia horiek emateko orduan baldintza-eskakizun "tekniko" eta ez-teknikoak erabili ziren: Egin irratiarena dugu lekuko, arazo teknikoan atzekaldean dauden interes politiko eta linguistikoen izaera ezagutzeko. Oso oker ez

bagaude, Egin irratia izango da horien artean euskarazko emankizun gehien dituen emisora: honek, izan ere, orain bertan ehuneko zehatzik aurreratzeko gauza ez banaiz ere, ehuneko handi batean euskaraz eskaintzen baititu bere irra-tsaioak. Gainerakoak, oro har, irradi katea estatal eta "hemengo" erdaldu-nen eskutara joan ziren. Baina, nola joan ziren? Zer eskatu zen, edo zer ez zen eskatu, Euskararen Legean arautu-takoaren haritik? Sinistezina litzateke, itsuak ez bagina, Lasagabasterrek he-men azaltzen digun hizkuntza za-palkuntza lotsagabearen egoera.

Pasartea luzea da, dudarik gabe, bai-na ez du deus galtzekorik botere pu-blikotik euskaldunon hizkuntz eskubi-deak honela zapaltzen dizkiguten garai hauetan: "Si la LNE se dirige al Gobier-no encomendándose que adopte las medidas conducentes a aumentar la presencia del euskera en los medios de comunicación social (art. 22 LNE), pro-moviendo el empleo preferente del eus-keren en los medios de comunicación de la Comunidad Autónoma (art. 23 LNE) y adoptando las medidas encaminadas a la promoción y protección de uso del euskera, potenciando en todo caso su difusión y posibilidades de utilización efectiva en la radiodifusión (art. 24 LNE), así como desarrollando el oportuno título dentro de las leyes que se refieran a ese último aspecto (art. 25 LNE), difícil compatibilidad con la mis-ma tiene un Derecho como el 240/1986, donde ni formalmente se ha esta-blecido un título que regule la utiliza-ción del euskera.

Las consecuencias de lo anterior son obvias. Ninguno de los concesionarios está obligado a emitir en euskera ni conforme al título concesional le es exigible. La norma que regule el otorga-

miento de concesiones para la emisión en FM requiere, para respetar los dicta-dos de la LNE, que mínimamente se cumplan los siguientes requisitos:

- reserva de frecuencias para emisio-nes únicamente en euskera;

- valoración preferente de la utiliza-ción del euskera en el otorgamiento de la concesión;

- exigencia explícita en el título conce-sional de la utilización del euskera, que en su caso pueda conllevar la rescisión del título concesional".

Euskaltzale orok daki, honez gero, euskararen arazorik larriena zein den. Euskaltzale orok baitaki, hizkuntzak oi-narri-oinarrizko erreprodukzio-meka-nismo batzuen euskarririk ez baldin badu, gainerako guztia hizjariora dela. Eta horra euskaldungoari, oraindik ere, bere existentziarako mekanismo horiek nola ukatzen zaizkion, espainiar legiti-mitatearen izenean.

"Quebec, Cataluña y Euskadi: una Tipología de Planificación Lingüística". Albert Bastardas Boada, in *Euskara Biltzarra (II. Atala: Hizkuntza eta Gizartea) II. Euskal Mundu-Biltzarra, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1988.*

Albert Bastardas Boadak, Bartzelo-nako Unibertsitateko irakasleak, bi txos-ten aurkeztu zituen Biltzarre honetan, Zein baino zein mamitsuagoak, biak ere neurritz motzak izan arren. Lehendabi-ziko honetan, sarrerako lerro bakanen ondotik, bi atal nagusi ageri zaizkigu honako deitura hauen pean: "Caracte-rísticas de la tipología" eta "Perspecti-

vas actuales y futuras".

Deigarria da hastapenean bertan honako honekin etortzea, gure aburuetan hain urrun finkatzen ditugun hiru problematika hauen amankomuneko puntuak azpimarratuz. Usteak uste, "... situaciones de Quebec, Cataluña y del País Vasco parecen tener -a pesar de sus diferencias- no pocos puntos de similitud y de coincidencia". Deigarria esan du, eta nahita esan ere; izan ere, sarri askotan aski oharmen zorrotzik ez baitugu izaten hiru problematika hauen arteko egitura-arazo amankomunik behar bezala nabarmenarazteko. Ez datorkigu hain desegoki, hortaz, Albert Bastardesen eskutik bi faktore nagusitara biltzen den egiturazko arazo hori gogoratzea: "a) su subordinación política a un estado dominado por otro grupo lingüístico mayoritario en los territorios que a nivel global abarca esta organización política soberana; y b) la presencia en el territorio autóctono de un importante contingente de individuos pertenecientes lingüísticamente al grupo mayoritario del conjunto del Estado (fruto de asentamientos históricos, de recientes migraciones o de sustitución lingüística en la propia comunidad autóctona)".

Finlandian eta Flandrian ez bezala, hauek beren eskuko baitira hizkuntz plangintzaren moldapen eta ezarpean, hiru herrialdeotan aski arazo larriak sortzen dira hizkuntz plangintza bere osotasunean hezurmamitzeko orduan. Lehendabiziko ondorio larria hitzotan adierazten digu kataluniar irakasleak: "La primera consecuencia, pues, de esta situación de subordinación política es la posibilidad constante de interferencia legislativa y jurídica de los poderes centrales del estado en las decisiones que sobre planificación de

los usos lingüísticos pueda tomar el gobierno autónomo de estas comunidades". Esandako honen harian, erantsiko du, Katalunian edo Euskal Herrian ezin dela bertako herritarren eskutik diseinatutako hizkuntza plangintza demokratikorik gauzatu.

Mendeko egoera politiko honen ondorio makurrak izendatzen hasten denean, herrialde hauen hizkuntz plangintzarako mugak hain bortizki azalartzen dituen datu bat gogorarazten digu: hiruretan gertatua, gainera. Alegia, herrialde hauetako aginte autonomikoarensailetan hartutako zenbait hizkuntz erabaki eta xedapen baliogabetzea hain zuzen Estatuaren organo judizialen aldetik. Herrialdeok, beren burujabetasunik ez izatean, Estatu-espazioaren geografian barrena mugitzen diren elementu guztiak irentsi beharren suertatzen dira. Quebec-en zoria hobe omen da, merkatal etiketaia edo publizitatearen alorrean, herrialde honek zenbait hizkuntz xedapen onartuta dituelako frantziara babesteko. Ez, ordea, hemen. Hemen ez baitago inolako kontrolik hizkuntz zirkuitu arrotzak mozteko edo mugatzeko: "Así, capitales, inmigrantes, artículos comerciales, medios de comunicación escritos y audiovisuales, etc., etc., pueden circular con toda libertad en el territorio autóctono, lo que tiende a producir una invasión de mensajes vehiculados en el idioma dominante a nivel estatal".

Azkeneko atalean, egungo eta bihar-etziko perspektibe buruz ari denean, arras bestelakoak dira iritzi-egoerak. Quebec-ekoa da, jakina, hiruretan itxaropentsuena; eta gurea, gauza jakina denez, kezkarri eta goibelena. Quebec-en, 101 Legearen ondoriozko hizkuntza plangintzaren emaitzak begien aurrean direla, etorkizuna aski bidera-

tuta omen dago. Eta nola jokatu du horretarako hango Gobernuak? Arrunt jaingarria da hango hizkuntz politikaz planteatzen duen estrategia: pertsona fisikoena eta juridikoena, alegia. Politika honek, izan ere, hiztunen eskubi-deak babestu egiten ditu (han anglofonoenak); baina eskubide horrek ez du uka-tzen, hemen bezala, bertako hizkuntzaren aldeko neurri sakonik hartzea. Horra, beraz, giltzarria: "Así, Quebec ha avanzado hacia una regulación detallada del conjunto de funciones lingüísticas de la sociedad, tratando de priorizar o de usar exclusivamente el idioma propio donde fuera posible, en especial a través de la distinción entre personas físicas y jurídicas y de la intervención gubernamental en los usos lingüísticos de estas últimas, en base a claros principios de apoyo público al francés y de respeto a los individuos anglófonos".

Katalunian, Quebec-en ez bezala, konstituzio estatalaren agindupean, elebikuntzaren bidea urratu beharra dago. Bestalde, abiapuntua bera ere askoz okerragoa da demolinguitikaren arabera: etorkinen kopurua eta integrazio-maila ez baita konparatzekoa. Etor-kizuna ez dago, beraz, oso argi: "En

estas condiciones, esta situación se presenta compleja e indeterminada, dado que si por un lado el catalán será promovido a través de la escuela y de los órganos administrativos oficiales autónomos y cuenta con la lealtad lingüística de muchos de sus hablantes y con la mejor posición social de éstos respecto de los inmigrantes del resto del Estado, el castellano cuenta con la inercia de los usos hasta ahora vigentes, con el conocimiento general de todos los individuos del territorio, con su oficialidad exclusiva a nivel estatal y su cooficialidad en al propia Cataluña y con su preeminencia en los medios de comunicación audiovisuales y escritos".

Eta zer esango ote du Albert Bastardasek euskararen geroaz? Ez da bate-rantz zaila asmatzen. Oraindik orain, gure arteko psoezialista batek ere (Jauregi jaunak, hain zuzen) arriskuaren berri eman digu: ditxosozko Irlanda maitea, gerta dakigukeenaren irudi beldurgarria. Gureak ez bide du atarramendu onik gauden-gaudenean egonda eta goazen-goazenetik joanda: "En cuanto al euskera, su caso puede parecerse a la situación del irlandés, con los riesgos de fracaso que este último caso ilustra. Con la mayoría de la comunidad ya unilingüe castellana, y con importante presencia de inmigrantes de origen novasco, el intento de salvación y de revitalización social de la lengua vasca cuenta con una excelente predisposición ideológica de sus ciudadanos pero con escasos incentivos funcionales".

Joxe Manuel Odriozola

Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea